

BAZTANGO UDALAK 3 PERTSONA KONTRATATUKO DITU LANALDI ERDIZ (3 HILABETE, D MAILA), TURISMO-INTERESEKO GUNEETAN BISITARIEN JOAN-ETORRIA BIDERATZEKO ETA ESPAZIO HAUEK ZAINTEKO. HAUTAKETA-PROZESUA HONAKO HAU IZANGO DA:

FUNTZIOAK:

Baztan interes turistikoko helmuga da eta herri batzuetan pilaketak sortzen dira honen ondorioz, bereziki Erratzun eta Amaiurren. Ibilgailuen eta pertsonen masifikazioaren ondorioak leuntzeko lanak dira, horretarako prestatutako tresnen bidez, bisitariak orientatzeko eta espazioak zaintzeko.

BETEBEHARREKOAK:

- Gutxienez eskola graduatua, DBH, Lanbide Heziketa 1 maila edo baliokidea.
- 16 urtez goitiko izatea.
- Euskara ezagutza (C1/EGA).

KURRIKULUMAREN BAREMAZIOA (Gehienez ere 20 Puntu)

1.- FORMAKUNTZA (Gehienez ere 8 Puntu):

- Batxillergoa edo baliokidea edukitzea: 2 puntu
- B1 mailako gida baimena.: 2 puntu
- Frantsesa edo Ingeleraren hizkuntza ezagutza egiaztatuko duen ziurtagiri bakoitzeko 2 puntu (gutxienez B2)

2.- LAN ESPERIENTZIA (Gehienez ere 12 Puntu):

- Administrazio publikoetan turismo arloan edo jendaurreko arretan lanaldi osoan aritzeagatik, urte bakoitzeko: 2 puntu (gehienez ere 8 puntu).
- Entitate pribatu batean turismo informazio edo turismo kudeaketa alorretan lanaldi osoan aritzeagatik, urte bakoitzeko puntu bat (gehienez ere 4 puntu).
- Egiaztatutako esperientzia baloratzean, urte edo lanaldi osoa egiten ez duen aldiari proportzioan dagokiona emanen zaio.

3.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Deialdian parte hartzeko eskabideak Baztango Udaleko erregistroan aurkeztuko dira. Izangaiek kurrikuluma eta eskatutako tituluen egiaztatutako originalak aurkeztuko dituzte eskabidearekin batera, bai eta lehiaketan baliarazi nahi dituzten merezimendu guztienak ere. **Epea: 2023ko maiatzaren 30a, 14:00ak arte.** Eskaera erregistro elektronikoen bidez ere egin daiteke.
- Lan esperientzia egiaztatzeko bizi laboralaren ziurtagiria edota enpresa ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.
- **EUSKARA:** titulua edo baliokidea aurkezten ez duten hautagaien maila ahozko azterketa bidez akreditatu beharko dute. **Euskara probaren eguna 2023ko ekainaren 5**

EZAGUTZA TEKNIKOA EGIAZTATZEKO PROBA (Gehinez ere. 80 Puntu)

- Non: Baztango Udala
- Eguna: **2023ko ekainaren 8.**
- Ordua: 9:00ak.
- Arduraduna: Epaimahaia.

- Edukia:
 - Proba teorikoa. Baztango gaien eta turismo eskeintzari buruzko test moduko galderak (gehienez ere 30 puntu; gutxienez 15 puntu eskatuko dira).
 - Proba praktikoa (gehienez ere 50 puntu; gutxienez 25 puntu eskatuko dira). Hautagaiek gaiari lotutako kasu praktikoa bat garatu beharko dute: euskarri informatikoaren bidez, ibilgailu bat turismo-gune batean aparkatzeko erreserba egin (15), Excel eta posta elektronikoko proba erraz bate gin (15) eta Baztango turismoari buruzko informazio-eskaera zehatz bati ahoz erantzun (20).

EPAIMAHAIA:

Honako hauek izanen dira epaimahaikide:

-Mahaiburua: Baztango Udaleko alkatea.
Ordezkoa: Baztango Udaleko lehenengo alkateordea.

-Mahaikidea: Baztango Udaleko Turismo zinegotzia.
Ordezkoa: Baztango Udaleko zinegotzia.

-Mahaikidea: Baztan Udaleko Berdintasun teknikaria.
Ordezkoa: Baztan Udaleko langilegoaren ordezkari bat.

-Mahaikidea: Baztan Udaleko Garapen Agentea.
Ordezkoa: Garapen Agenteak erabakitzen duena.

-Idazkaria: Baztango Udalekoa edo legez haren ordezkaria dena.
Ordezkoa: Idazkariak erabakitzen duena.

Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da.

Udalak test teorikoa gainditzen duten pertsona guztien behin-betiko zerrenda erabiltzeko aukeraz baliatuko da beharrezkoak diren egoerei aurre egiteko (ohiko langilearen lan bajak, opor egunak, behar berezi edo bertzelakoak).

INFORMAZIO GEHIAGO:

Telefonoa: 948580006, helbide elektronikoa: bztan@bztan.eus

Eman beharreko dokumentazioa:

- Currículum Vitae
- Eskola graduatua, DBH, edo Lanbide Heziketa 1 maila edo baliokidea ziurtatzen duen agiria
- NAN
- C1/EGA agiria (ez edukitzean, dagokion frogak eginen da)
- Lan esperientzia eta bertzelako formakuntza ziurtatzen duten agiriak

Dokumentazioa aurkezteko epea:

- Maitzaren 30, 14:00